

SORTUren eratze prozesuaren emaitza

AUZOLAN POLITIKO IREKIA, KOLEKTIBOA ETA PARTE HARTZAILEA

UN PROCESO CONSTITUYENTE ABIERTO, COLECTIVO Y PARTICIPATIVO

SORTUren Eratze Kongresu honen lehen atal honetan, hamalau hilabetez luzatu den gure indar politiko berriaren Eratze Prozesuaren deskargoa egitea dagokigu, zer eta nola egin dugun azaltzea eta, nola ez, emaitzak gainbegiratzea, Eratze Kongresuak egindako lanaren inguruan bere oniritzia eman dezan. Deskargoa egiteko orduan atal ezberdinak banan bana azalduko ditugu.

1.- PROZESUAREN DINAMIZAZIORAKO LAN TALDE NAGUSIA

GRUPO DE TRABAJO PARA LA DINAMIZACIÓN DEL PROCESO

Lehen lana, SORTUren Eratze Prozesua dinamizatzeko Lan Talde Nagusia osatzea izan zen. Horretarako, azken urteotan Ezker Abertzalearen Formakuntza prozesu ezberdinetan ibili garen hamar laguneko taldea izendatu genuen, gazteak, langileak, emakumeak, herrigintzakoak eta egiturakoak bertan txertatuz.

Lan Talde Nagusiaren lehen lana, SORTUren Eratze Prozesuan landu beharreko atalak zehaztea izan zen, ondoren, atal horiek nola landuko genituen zehazteko. Lehen hausnarketa horren ondorioz lantzeko lau atal zehaztu ziren:

- SORTUren perfil politikoaren funtzeak zuzen OINARRI IDEOLOGIKOAK
- SORTUren lana zuzenduko zuen ILDO POLITIKOAK
- SORTUren lan politikoaren sozializatzeko zuzen KOMUNIKAZIOAK
- SORTUren eraginkortasuna ziurtatzeko zuzen ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Gauzak horrela, Lan Talde Nagusiaz gain, gai bakoitzaren inguruko lau azpi lan talde osatu ziren, ahal zen neurrian Lan

Talde Nagusia osatzeko erabili ziren irizpide berak mantenduz, gazteak, langileak, emakumeak, herrigintzakoak eta egiturakoak txertatuz.

Prozedura arruntetan, izendatutako lan talde batek idatzi izan ohi du Kongresuetan aurkezten diren eztabaidarako Ponentziak. Gurea ez da horrelakorik egin. Eztabaida askoz ere irekiago eta parte hartzaileago izan zedin, Lan Talde Nagusiak SORTUren Eratze Kongresurako Ponentzia idatzeko oinarritzko materiala 170 fitxen inguruko KONTRASTE ARIKETA batetik eskuratzea erabaki genuen. "Ideien Borroka" deitu genion lan horri.

Bases Ideológicas, Línea Política, Comunicación, Modelo Organizativo y Funcionamiento fueron las cuatro áreas y las cuatro comisiones propuestas por el Grupo de Trabajo para la dinamización y redacción de las bases de la Ponencia del Proceso Constituyente de SORTU.

2.- "Ideien borroka", KONTRASTE ARIKETA.

"Batalla de las ideas", EJERCICIO DE CONTRASTE.

Gauzak horrela, joan den udaberrian, ia hiru hilabetez, 300dik gora lagunek Hego Euskal Herriko 30 eskualdetan, 8/12 lagunek osaturiko lan taldeetan (bertan gazteak, langileak, emakumeak, herrigintzakoak eta egiturakoak txertatuz) gai bakoitzaren inguruan lau azpi lan taldeek proposaturiko 170 fitxen inguruan egin genuen lehen eztabaida prozesua. Emaitza, ikusgarria izan zen, ehundaka ekarpen egin baitzitzaizkien proposaturiko fitxei. Toki askotan lan horretan bost edo sei larunbata pasa zituzten.

"Ideien Borroka" izeneko Kontraste Ariketa horren ondorioz eskuraturiko oinarri politikoak kontutan izanik, joan den udan lau azpi lan taldeek, SORTUren Eratze Prozesurako Ponentzia prestatu zuten eta Eratze Prozesua bera funtze. Uda amaierarako eztabaidarako Ponentzia idatzi genuen.

Une berean, eztabaidarako metodologia prestuko zuen aditu taldea sortu genuen, eztabaida, benetakoa, zabala, irekia eta kolektiboa izan zedin, "talde dinamikaz" garatzeko erabakia hartu baikenuen.

Más de 300 personas tomaron parte en el Ejercicio de Contraste denominado la "Batalla de Ideas" durante la pasada primavera en los grupos de debate constituidos en 30 comarcas de Hego Euskal Herria para debatir más de 170 fichas con el objetivo de establecer las bases de los cuatro capítulos que compondrían la Ponencia para el Proceso Constituyente de SORTU. Un trabajo que se prolongó durante casi tres meses y que permitió la mejora de la fichas propuestas con las emiendas realizadas y la elaboración de la Ponencia para finales del verano.

3.- SORTUren ERATZE PROZESUA

Proceso Constituyente de SORTU

Udazkena hasieran SORTUren Eratze Fasean eztabaidatuko zen Ponentziaren banaketa zabalari ekin genion. Bataz beste, herriz herriz eta eskuz esku, 18.000 Ponentzia banatu genituen Hego Euskal Herri osoan eta baita euskal preso politiko bakoitzari ale bana bidali. Gehienak jaso zutela jakin badakigu.

Metodologiarako lan taldeak proposatua, herri zein auzo bakoitzean Ponentzia eztabaidatzeko lau batzar ireki antolatzea erabaki genuen, azaroan lehena, Oinarri ideologikoa. Abenduan, bigarrena, Ildo Politikoarena, Urtarrilean, hirugarrena, Antolaketa eta Funtzionamenduarena eta, laugarrena, otsailean, Komunikazioari dagokiona. Otsailean barne hauteskunde prozesua burutu genuen arduradunak hautatuz eta orain Kongresua.

Guztira, eta bataz beste, 240 herri eta auzoetan antolatu dira eztabaidarako lau batzarrak eta, batzar guztietan jende kopuru berak hartu ez badu ere, guztira 6.000 lagundik gora parte hartu du, erdiak baino gehiago 35 urtetik beherakoak eta emakumezkoak, herena. Gauzak horrela, gure militantziak eztabaida eta parte hartzeko aukera zabala izan da, Euskal Herrian antolatutako ia 1000 batzar ireki horietan. Azken lau hilabeteotan, auzolanean eta hausnarketa kolektiboan, 6.000 kide horiek 16.000 lan orduetik gora eskaini dizkiote SORTUren Eratze Prozesuari.

"Taldea dinamika" modalitatean antolatutako batzar horiek behar den moduan dinamizatzeke, Metodologiarako Lan Taldeak eginiko materialean oinarrituta, 600 dinamizatzaile inguru aritu dira lanean 240 batzar horien hausnarketa eta ekarpena zuzentzen.

Lan erraldoi horren emaitza da Lan Talde Nagusiak landu, aztertu, sintetizatu eta bozketarako prestatu behar izan dituen Oinarri Ideologikoei egindako emendakinak (400dik gora), Ildo Politikoari eginikoak (900dik gora) eta Antolaketa eta Funtzionamenduaren inguruan aurkeztutakoak (500 gora). Denetara, proposaturiko Ponentziari 1.800 emendakin aurkeztu zaizkio 240 batzarretan, hauetako asko eta asko hobekuntza motakoak eta beste asko eta asko herri eta auzo batzarretan errepikatuak.

Azkenean, Oinarri Ideologikoetan 65 paragrafoetatik emendatuak izan zirenak 33 izan ziren eta bozketatan onartu ondoren aldatutakoak 18, testu osoaren % 28a, eta Ponentziaren Oinarri Ideologikoen onarpena maila, % 77koa. Ildo Politikoari dagokionez, 240 paragrafoetatik, emendatutakoak 55 izan ziren eta hauetatik bozketan onartu ondoren aldatutakoak 35, testu osoaren % 14a eta Ponentziaren Ildo Politikoaren onarpena maila, % 91a. Azkenik, Antolakuntza eta Funtzionamenduaren atalean, 83 paragrafoetatik, 45 izan ziren emendatutakoak eta hautetatik bozketatan onartu eta aldatutakoak 21, testuaren % 25a eta Ponentziaren Antolakuntza eta Funtzionamenduaren onarpena maila, % 82koa. Gauzak horrela, oro har esan genezake Ponentzia osoaren onarpen maila, % 82koa izan dela.

Emaitza eta eginiko lana, pozteko modukoa da. Gaur egun Euskal Herrian horrelako prozesu bat egiteko gai den indar politiko bakarra gurea dela argi dago. Finkatu dugun prozesua bideratzeko nahiko indar dagoela begi bistakoa da.

Para el desarrollo y participación en el Proceso Constituyente de SORTU, hemos distribuido, mano a mano, en un ejercicio de contacto directo con las personas, más de 18.000 ejemplares de la Ponencia. En total, hemos celebrado en estos cuatro meses, cuatro debates en 240 asambleas en las que han tomado parte más de 6000 militantes. Un total de 1.000 asambleas por toda Euskal Herria que ha posibilitado un trabajo colectivo de reflexión y debate de más de 16.000 horas, animado por más de 600 dinamizadores. El resultado del trabajo realizado se recoge en las más de 1.800 emiendas de mejora o alternativas presentadas a los cuatro capítulos de la ponencia, de las cuales tras las votaciones han conllevado la modificación y mejora del texto de la Ponencia original en un 67 %. La Por todo ello, la Ponencia ha sido aprobada con un 82 % en las asambleas realizadas.

Hoy por hoy, somos la única formación política de Euskal Herria con capacidad para desarrollar un proceso constituyente de estas características y de semejante dimensión. Es más que evidente de que tenemos suficiente fuerza y músculo para llevar a la práctica los objetivos políticos que nos hemos marcado.

4.- SORTUren BARNE HAUTESKUNDEAK

Elecciones internas de SORTU

Azkenik, barne hauteskunde prozesuan, auzo, herri eta egitura bakoitzak SORTUren maila guztietako ardurak betetzeko izenak proposatu ditu. Ehundaka eta ehundaka izan dira. Guztiekin kontrastea egin ondoren, SORTUren ardura nazional eta herrialdeko ardura guztiak beti dira, eta herri zein auzo mailako gehienak ere bai. Zuek horietakoak zarete, zuen auzo edota herrietan hautatutakoak. Maila lokalean falta diren gutxi horiek, Kongresua ondoren beteko dira, beraien batzarretan onartu eta gero. Gaur, Kongresu amaieran, barne hauteskunde horien bozketako emaitza nagusiak ezagutuko dugu.

Zorionak guztioi eginiko lanarengatik.

Finalmente, tras definir las ideas y los caminos a seguir, hemos elegido ,en un proceso electoral interno, todas las personas necesarias para cubrir todas las responsabilidades de SORTU. Han sido cientos y cientos las personas propuestas por la asambleas, Hemos desarrollado con cada una de ellas el contratse necesario para preparar la votación del pasado día 16 de febrero, tras lo que hemos conseguido elegir todos los cargos de responsabilidad de caracter nacional y provincial y la mayoría de los cargos de ámbito local. Vosotros y vosotras sois una parte de ellas ya que habeis sido elegidos en vuestro barrios y pueblos. Los pocos cargos vacantes pendiente de elección en los marcos locales, serán elegidos despues del Congreso y aprobados en sus respectivas asambleas. El resultado del proceso electoral internos en los órganos principales, lo conoceremos hoy, al final de Congreso.

Gracias y felicidades por todo el trabajo desarrollado.